

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Obren lizitazioa: Pobesen hirugarren adinekoen egoitza egiteko proiektua, I C fasea

Erriberagoitiko Udalak, 2016ko uztailaren 1ean egindako ohiko osoko bilkuran, onartu egin zuen baldintza ekonomiko-administratiboan agiria Pobesen hirugarren adinekoen egoitza egiteko proiektuaren obrak (I C fasea) esleitzeko. Agiri hori jendaurrean jartzen da 8 egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Aldi berean, eta bat etorritz toki araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bateratuak 122.2 artikuluan ezarritakoarekin, lehiaketa publikoa deitzen da, nahiz eta lizitazioa atzeratu egingo den baldintza agiri horren aurka erreklamazioen bat aurkezten bada.

Lehiaketa

1. Erakunde esleitzaila: Erriberagoitiko Udala
2. Kontratuaren xedea: Pobesen hirugarren adinekoen egoitza egiteko proiektua, I C fasea.
3. Izapidetzea eta prozedura: Izapidetze arrunta, prozedura irekia.
4. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: 220.566,50 euro, eta 46.318,96 euroko BEZa.
5. Bermeak: behin-behinekoa: 6.617,00 euro. Behin betikoa: obraren balio esleituaren ehuneko 5.
6. Esleitzeko oinarriztat hartuko diren irizpideak, baldintzen agiriaren arabera:
 - a). Automatikoak edo formula edo kalkulu aritmetiko bidez ebalua daitezkeenak (handienetik txikienera), guztira 54 punturen gainean:
 - Udalak ordaindu beharreko prezioa obra egiteko, ekipamendurako eta instalazioetarako: Gehienez ere 50 puntu, ehuneko 1eko jaitsiera bakoitzeko 2, zatikatzeko aukerarik gabe.
 - . Lanaren bermea. Puntu 1 nahitaezko lehenengo urteari gehitutako urte oso bakoitzeko; gehienez ere 4 puntutaraino.
 - b). Objektiboki ebaluatu ezin direnak, balioespen subjektiboa eskatzen baitute, gehienez 46 punturen gainean:
 - Memoria teknikoa. Bertan honako hauek balioetsiko dira:
 - a. Azterlana eta proiektuaren ezaguera
 - b. Gauzatzearen puntu kritikoen zehaztapena eta horiek konpontzeko proposamena.
 - c. Lana egitean kanpoaldeari kalte txikiagoa egitea
 - d. Esleipendunak kontratuaren gauzatzeari lotu eta atxikitzeko konpromisoa hartzen duen baliabide material eta pertsonalak –erabat ongi identifikatuta, baliabide pertsonalen titulazioa eta esperientziarekin, eta materialen deskribapenarekin-.
 - e. Obraren plangintza, astez aste.
 - f. Baliabideak hobetzeko edo arrazionalizatzeko proposamenak.
 - g. Jarraituko zaien ingurumen irizpideak.

Beharrezkoa izango da fase honetan gutxienez 23 puntu lortzea, guztira, prozeduran jarraitzeko, horretatik kanpo gelditu gabe.

7. Agiriak eta argibideak eskuratzea: Erriberagoitiko udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara, eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte, eta haren erriberagoitia.com web orriko kontratatzailearen profilean.

8. Eskaintzak aurkeztea: Erriberagoitiko udal bulegoetan aurkeztu behar dira, astelehenetik ostiralera (larunbatetan ez), 09:00etatik 14:00etara, 26 egun naturaleko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

9. Obra gauzatzeko sailkapena:

— Ez da eskatzen.

Erriberagoitia, 2016ko uztailaren 4a

Alkatea

JESÚS BERGANZA GONZÁLEZ